

Musikaren garrantzia ikasgeletan: “Musika ez da irakasgai soil bat, gure barrukoa adierazteko artea baizik”

‘Musikaren erabilera eta bizipena Haur Hezkuntzan’ ikastaroa abian jarri du Ana Urrutia irakasleak, hasiberri den UEUko 42. edizioan. Bertan, musikaren garrantziaz jabetzea eta ikaslearen garapen osoa lortzeko (entzumena, adierazpena eta sormena) beharrezko baliabideak ezagutaraztea du jomuga irakasleak. Hori guztia lortzeko, jarduera praktikoak zein teorikoak bideratuko ditu, eta bakarka zein taldeka lan egingo dute partaideek.

Entzumena, adierazpena eta sormena garatzeko balio du musikak. Hala, Haur Hezkuntzan musikaren bizipena eta erabileraren garrantzia azpimarratu nahi izan du Urrutiak, haurren garapen osoa lortzeko eta bere entzumena, adierazpena eta sormena adierazteko ezinbestekoa baita. Aipatzen du musikaren bitartez haurren barruko mundua adierazten ahal dela. Halaber, beste kompetentzia batzuk badaudela azaltzen du; zeharkako kompetentziak, esaterako. Haurren arteko harremana eta, norberaren eta ingurunearen ezagutza ere lantzen ahal da musika erabiliz. Halaz, geletan bizikidetza hobetzeko modua ere badela argitzen du.

Ikastaroaren helburu nagusia, bada, inguruan dauden baliabideekin kontaktuan jartzea izango da; hau da, mugimendua, gorputza, ahotsa, eta tresnak ezagutzea eta azken finean, horiek nola erabiltzen diren ikastea. Horretarako, zenbait jarduera proposatzen ditu Urrutiak ikastaro honetan: “Haur hezkuntzako gelan mugimenduaz baliatzen ahal gara: mobilizazioak, koreografia txikitxoak, dantza xumeak eginez”. Hori lortzeko askotan herriko dantzak oinarri hartzen dituztela azaltzen du: “Horiek antolatzen eta moldatzen ditugu ere, gelan erabili ahal izateko”. Horretaz aparte, ahotsa landu beharreko elementu garrantzitsua dela dio: “Silabekin jolasten ahal dugu, haurrak oso txikitxoak direnean: *ta-ta-te-te*. Horrekin batera, musika tresnak ere aipatzen ditu irakasleak: “Haienez egokiak direnak erabiltzen ditugu. Adibidez: kotidiafonoak, gorputz perkusioa, boomwhackers, perkusio txikia, plakadunak”.

“Musika oso naturala da eta ulertu behar dugu musika arloan ez direla musika lanak bakarrik sartzen; soinuak, isiluneak, umeek egiten dituzten zaratatxoak, onomatopeiak, animaliek sortzen dituzten soinuak...horrek guztiak osatzen du musika arloa”. Gauzak horrela, musika haurrentzat “oso baliagarria eta esanguratsua” dela dio. Itxura denez, musika erabiltzean barruko munduarekin eta emozioekin bat egiten dutelako haurrek: “Dantza egitea, ahotsa erabiltzea, edozein jarduera egitea edo musika tresnak jotzea laguntzen du eta noski, besteekiko harremanak garatzen dira eta horiek indartzen ditugu”. Azken ideari jarraiki, Urrutiak dio haurren adimen emozionalean bete-betean sartzen dela musika.

Amaitzen du esanez, musikaren egoera hezkuntzan latza dela eta orokorrean oso leku txikia eskaintzen zaiola: “Musika Haur Hezkuntzan egunero lantzeko arlo bat izan beharko litzateke”. Egoera horri aurre egiteko, azken finean, jendeak musika irakasgai soil bat baino gehiago dela ulertzea nahi du Urrutiak: “Benetan erabili behar dugun artea edo arloa da, gure barrukoa adierazteko”.



ueu
udako
euskal unibertsitatea

Zesar Martinez: “Euskal Herrian azken hamarkadetan aktibismo sozialak eta politikoak indar handia izan du, baina beti dago zer hobetu eta non sakondu”

Zesar Martinez UEUren 42. Udako Ikastaroetan eskainitako “Herrigintza eta formakuntza politikoa” izeneko udako ikastaroetan parte hartu du. Ikastaro hau Joxemi Zumalabe Fundazioarekin elkarlanean antolatu da eta hain zuzen ere, Zesar Martinez Fundazio honen kide da. Ikastaro honetan, herri mugimenduaren formakuntzaren ahulgune eta indarguneen inguruan jardun da, etorkizuneko erronka nagusiak identifikatzeko helburuarekin.

Nondik sortu da ikastaro hau egiteko ideia?

Joxemi Zumalabe fundazioak zenbait helburu nagusi ditu. Alde batetik, herri mugimenduen alorrean dauden talde kolektibo eragile desberdinen arteko elkar ezagutza eta haien arteko elkar lana erraztea. Bestetik, herri mugimenduetako kideek dituzten formakuntza beharrezanean erantzuna ematea eta bitartekoak aktibatzea, formakuntzan dauden gabezi eta ahuleziei erantzunez. Urte askotan ibili gara saioak, jardunaldiak eta formakuntzaren arlo honetan aktibitate puntualak egiten eta aktibitate horiek nahiko erantzun ona izan dutela ikusirik, jauzi bat egitea pentsatu dugu eta jendeari begira herri mugimendurako formakuntza politikorako programa oso bat garatzea. Ikastaro hau beraz, bat dator fundazioaren helburuekin eta formakuntza programa hori sortzeko prozesuaren baitan kokatzen da.

Hausnarketa baten beharra planteatzen duzue ikastaroan, zein da gaur egun euskal herriko herri mugimenduaren egoera eta ezaugarriak?

Oso galdera zabala da hau, herri mugimendua oso eremu zabala eta heterogeneoa delako. Herriarrak sozialki eta politikoki antolatzen eta aktibatzen dira hainbat gairen inguruan, normalean injustizia edo zapalkuntza bati erantzuteko helburuarekin. Herri mugimenduaren barnean hainbat eremu daude: errepresioaren kontrako borrokak, autogestio ekimenak, feminismoa, internazionalismoa, ekologismoa... Batzuk maila lokalean mugitzen dira eta besteak maila internazionalen.

Beraz, heterogenitate hori kontuan hartuta oso zaila da gaur egun herri mugimenduaren inguruko erradiografia edo diagnosi bat egitea. Izan ere, gauzak etengabe aldatzen ari dira irizpide askori dagokionez eta erreparatzen diogunaren arabera analisisia modu batera edo bestera egin daiteke.

Formazioaren aldetik, ze hutsune eta ahulgune ditu Euskal Herriko herri mugimenduak?

Galdera honi erantzuna emateko antolatu dugu ikastaroa, hain zuzen ere. Euskal Herrian azken hamarkadetan aktibismo sozialak eta politikoak indar handia izan du eta horrek esan nahi du belaunaldiz belaunaldiko trasmizioan eta formakuntza politikoan gauzak oso ondo egin direla. Baina horrek ez du esan nahi du dena ondo egin dela, beti dago zer hobetu eta non sakondu.

Beraz, ikastaro honetan azkenaldian herri mugimenduaren alorrean, formakuntzari garrantzia eta lehentasuna eman dioten zenbait eragileengana hurbildu gara, adibidez, Bilgune Feministak

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org



udako
euskal unibertsitatea

sortu zuen Emagin eragilea, lehenagotik formakuntzaz ari ziren GITE-IPES bezalako eragileak... Ikastaro honetara ekarriko ditugun eragileak, haien ibilbidean formakuntza politikoaren eremuan zein hutsune eta zein indargune identifikatu dituen azalduko digute.

Zer motatako formazioa behar du herri mugimenduak? Izaera desberdineko mugimenduak daude, denentzat formazio berdina planteatzen da?

Argi dago zapalkuntza eta botere asimetria batzuei buelta emateko mugimenduak daudela eta jarduera aktibista sozial eta politiko horretan hainbat gauza dira garrantzitsuak. Adibidez, formakuntza ideologikoa garrantzitsua izan daiteke analisi kritikoa egiteko, hainbat planteamendu ideologiko politiko behar direlako analisi hori pertsonalki eta kolektiboki egin ahal izateko. Ezagutza estrategikoa aldiz, momentuaren arabera estrategiarik egokiena aukeratzearekin lotuta dago. Bestalde, norberaren borrokan aurrepausuak egiteko, aliantzak sortzen jakitea ere interesgarria izan daiteke. Horren ildotik, harreman politikoak daude. Izan ere, interesgarria izan daiteke hurbilak diren beste eragile eta pertsonekin harreman pertsonalak mantentzea, aliantza politikoak sortzeari begira. Eredu instituzionala ere hor dago. Beraz, hainbat eremu daude eta guztiontzat formazioaren beharra dugu.

Gauza batzuk nahiko amankomunak izan daitezke eta beste batzuk nahiko espezifikoak. Borrokan ari den jendeak bere eskarmentutik hainbat ikasbide ditu eta beraz, sektore desberdinetan daudenen arteko elkartrukea oso aberasgarria izan daiteke. Gure planteamendua, norberaren esperientziatik eta norberak lantzen duen zapalkuntza eta egiten duen borroka horretatik zer ikasi duen partekatzea da.

Ikastaroan eragile desberdinek parte hartu dute. Zein izan da ikastaroaren egitaraua?

Joxemi Zumalabe fundazioak azkeneko bizpahiru urteetan UEU antolatutako ikastaroetan erabilitako metodologia antzekoa jarraitu dugu. Gure ikastaroan izena ematen duten pertsonak ezagutzaren sortzaileak dira ere. Gonbidatuko ditugun pertsonak alde aurreko ezagutza dute landu dugun gaietan eta gogoeta aberasteko baliagarriak diren pertsonak eta eragileak kontsideratzen ditugu.

Egun bateko ikastaroa bada ere, lehendabiziko saioan, aurkezpen dinamika batzuk egitearekin batera, taldeak gaiari buruz bere gogoeta egin dugu. Guk planteatuko ditugun galdera pizgarri batzuen bidez bakoitzak bere eskarmentuaren arabera, planteamendu batzuk egitea da izan da gure helburua, denok denongandik ikasteko. Bigarren saioan mahai inguru bat izan dugu, herri mugimenduaren formakuntzaren alorreko lau eragileekin, Emagin, EHNE-Bizkaia, Ipar Hegoa Fundazioa eta Manu Robles Arangiz Fundazioa. Azken biak LAB eta ELA sindikatuaren formakuntza funtzioa betetzen dute. Mahai inguru honetan eskatu diegu eragileei formakuntzaren arloko euren ibilbidearen berri ematea eta bide horretan identifikatu dituzten hutsuneak eta oztopoak eta indarguneak zeintzuk izan diren identifikatzea. Horrela, apur bat taldeak alde aurretik egin duen gogoeta aberasten joan da.

Arratsalde partean beste mahai inguru bat egin dugu beste hiru eragileekin, Urtxintxa Bizkaia, GITE-IPES eta UEU. Kasu honetan ere, aurreko mahai inguruan erabilitako mekanika bera errepikatuz. Bigarren mahai inguru hau egin ostean, azkenengo saiora iritsi gara eta taldeak egunean zehar entzundakoaren baitan, bere gogoeta egin du: formakuntza politikoari dagokionez zeintzuk dira aurrera begira dauden erroka nagusienak, zer gauzak indartu behar diren, zer gauza jarraitu behar diren indartzen eta zer gauza egin behar diren.

Beraz, talde dinamika baten bitartez ere, taldeak bere gogoeta egin du horren inguruan eta horrekin amaiera aldera iritsi gara. Azkenik, Joxemi Zumalabek duen formakuntza egitasmoa zehatzago azaldu dugu, fundazioari begirako ekarpena izango delako ikastaroan zehar egin dena.



Nori zuzenduta dago ikastaroa?



udako
euskal unibertsitatea

Oro har, herrigintza, herri mugimendu eta formakuntzaren arlo honetan interesa duen edozeini zuzenduta dago. Gure ikastaroetan, aktibismo sozial eta politikoan dabilen jendea asko egoten da, baina ez hori bakarrik. Arlo horretan egiten denaren ingurua interesa duen edozein ongi etorria izan da, oso modu irekian planteatzen baitugu dinamikak.

BIHARKO AGENDA.

2014ko Uztailaren 1a asteartea

Musikaren erabilera eta bizipena Haur Hezkuntzan

9:00-13:00/15:00-17:00

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai
Tel.: 629 48 24 74
komunikazioa@ueu.org

Gaiak:

- Soinuaren ezaugarri batzuk: erritmoa, altuera, intentsitatea, tinbrea, forma.
- Mugimendua eta dantzak, abotsaren erabilera egokia, tresna desberdinak (kotidiafonoak, boomwhackers, perkusio txikia, plakadunak).
- Beste baliabide batzuk: gorputz-perkusioa, ipuin musikalak, musikogramak.

Irakaslea:

- **Ana Urrutia:** Goi-mailako musika irakaslea, doktorea, kontserbatorian eta musika-eskolan irakaslea izanda, egun UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako musika irakaslea.

Publizitatea euskaratik eta euskaraz: nola asmatu zure erakundearen komunikazioan.

Ordua	Edukiak	Irakaslea
9:00-11:00	Publizitatea. Oinarrizko kontzeptu teorikoak eta planifikazio estrategikoa	Estitxu Garai Artetxe
11:00-11:30	Atsedena	
11:30-13:00	Kanpain baten diseinua urratsez urrats	Estitxu Garai Artetxe
13:00-15:00	Bazkaltzeko etena	
15:00-17:00	Sormen tailerra: eduki teorikoetatik praktikara	Estitxu Garai Artetxe

Euskal komunikazio-eremua: ikerketa eta ekintzarako gune bideen bila. Euskal Hedabideen Behategirantz jardunaldia.

Ordua	Edukiak	Irakaslea
9:00-9:15	Aurkezpena: Euskal komunikazioaren eremuan ikertzeko, eragiteko, jarduteko eta aurrera egiteko gure parametro, metrika, diskurtso, kontzeptu, galdera eta bide propioak (asmatu, landu, sendotu, egin) beharraz.	
9:15-10:00	Ponentzia: Euskal komunikazioaren ikerketaren kartografia kritkoa (Patxi Azpillaga, EHU)	Patxi Azpillaga
10:00-11:00	Azken urteotan garatu diren eta egun indarrean dauden ikerketa taldeen, ikerketa lerroen eta ikerlarien aurkezpenak 1. Euskal Herriko Unibertsitateko NOR Ikerketa Taldea (Josu Amezaga) 2. Euskal Herriko	Josu Amezaga Albizu Alazne Aiestaran Yarza



udako
euskal unibertsitatea

11:00-11:30

Unibertsitateko HGH
(Hedabideak, Gizartea eta
Hezkuntza) Ikerketa Taldea
(Alazne Aiestaran)

Atsedena

11:30-13:30

**Azken urteotan garatu diren
eta egun indarrean dauden
ikerketa taldeen, ikerketa
lerroen eta ikerlarien
aurkezpenak**

3. Euskal Herriko
Unibertsitateko HEKA
(Europar Hizkuntza
gutxituetako Hedabideak eta
Kazetaritza) Ikerketa Taldea
(Iñaki Zabaleta)

4. Mondragon
Unibertsitatearen HUHEZIKO
HEZIKOM taldea (Aitor
Zuberogoitia)

5. Deustuko Unibertsitateko
ikerketak (Xabier Landabidea
eta Elixabete Perez Gaztelu)

Aitor Zuberogoitia Espilla

Xabier Landabidea Urresti

Iñaki Zabaleta Urkiola

13:30-15:00

Bazkaria

15:00-17:00

**Euskal Hedabideen
Behategia**

Euskal Komunikazio
Eremuaren azterketarako
gune. Aurkezpena,
proposamenak eta lan
egitasmoa 2014/15

Ikastaroak jarraitzeko:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365>

[#UI42](#) [#saretu](#)

**Informazio gehiago eta matrikula:
www.ueu.org**

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org